

**HERRIZAINGO SAILA**

*Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO INTERIOR**

*Dirección de Atención a las Víctimas  
De la Violencia de Género*

**ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAJETAKO SAILA**

*Gizarte Gaietako Sailburuordetza  
Immigrazio eta Aniztasuna  
Kudeatzeko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES**

*Viceconsejería de Asuntos Sociales  
Dirección de Inmigración  
Y Gestión de la Diversidad*

## GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUME ETORKINEI LAGUNTZEKO GOMENDIOAK

Agiri hau **Eusko Jaurlaritzaren Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Immigrazio Zuzendaritzak** sustatutako lan-prozesua da eta bertan herri- eta gizarte-erakundeetako eragileek parte hartu zuten (\*). Agirian ekarpenak zenbait ikuspegitatik jasotzen dira eta, emakumeak etorkinak diren kasuetan, genero-indarkeriaren fenomenorako hurbilketa izan nahi du. Aldi berean, hobetu beharreko alderdiak atzemateko asmoa du; baita egun EAEn dauden ekintzak, programak eta baliabideak egokitzeari begira kontuan hartu behar diren gai garrantzitsuak atzemateko ere.

### I. INFORMAZIOA

Atzemandako beharren arabera; hain zuzen, Genero-indarkeriaren kontzeptualizazioaz; biktimei dagozkien eskubideez; prebentzio- eta arreta-politika eta –zerbitzuei buruz; dispositiboetarako hurbilketa baldintzatzen duten faktoreez eta genero-indarkeriari erantzuteko langileen lanaz atzerritarrek duten ezagupen-mailaren inguruan, hobetu beharreko premia edo alderdi batzuk atzeman dira:

Emakume etorkin guztiengana iritsi ahal izateko informazio-prozesu guztiak moldatzea. Horretarako, inguruabar guztietara egokituko dira eta informazioa gehiegizkoa eta ez oso argia izatea edo itxaropen faltsuak eragitea saihestu egingo da; hori guztia, nora joan behar duten, zeintzuk diren beren eskubideak eta zeintzuk diren eskura dituzten baliabideak dakitela ziurtatzeko.

Informazioa itzulpenaren bidez modu egokian heltzen dela ziurtatzea, kanpainen mezuetan zein inplikaturako eragileekiko harremanetan.

Inplikaturako profesionalek informazio egokia eta espezifikoa izatea gomendatzen dugu, baita beraien arteko koordinazioa hobezina izatea ere.

Gai horiek lantzeko bideetako bat izan daiteke administrazioek gizarte-erakundeei laguntza ematea, era horretan komunitate-lanak eta elkartegintzaren indartzeak genero-indarkeriari aurrea hartu eta erantzuteko balio izan dezaten.

Horrenbestez, emakume etorkinei mezuak modu egokian helarazterakoan, ahalegindu behar da honako gomendio hauei jarraitzen:

- Mezu argiak eta zehatzak
- Hizkera hurbila eta sinplea erabiltzea, horrela emakume etorkinak identifikatuta senti daitezen eta emakume analfabetoek uler dezaten.
- Informazio zabala, arreta bakarrik salaketan jartzen ez duena.
- Mezu positiboak, indarkeriazko harremana apurtzea erabaki duten emakumeen arrakasta aipatzen dutenak, baina emakumeen ahalduz egiten direnak.
- Biktimaren eta erasotzailearen nazionaltasuna ez aipatzeko ahaleginak egitea
- Desberdintasuna genero-indarkeriaren egitura-kausa dela azpimarratzea.
- Ikur partekatuen erabilera, hizkuntza- eta kultura-oztopotik haratago dauden elementutzat hartuta (puntu lila).



Mezuak helarazteko bideari dagokionez:

- Betiko kanalak erabiltzea (zerbitzu publikoak, komunikabideak) eta beste batzuk, hala nola: ahoz, kontzientziazio-taldeak, indarkeriaren kontrako batzordeak, hitzaldiak eta prestakuntza-lantegiak, komunitatean liderrak edo erreferentziazko pertsonak, kaleko hezitzaileak, kulturarteko bitartekariak...

Eta haren banaketa eta zabalkunderako:

- Emakume etorkinak sarrien ibiltzen diren tokietara hurbiltzea (elkartek, telefonotegiak, gurtza-tokiak, saltokiak, enbaxadak eta kontsuletxeak).

## II. SENTSIBILIZAZIOA

“Sentsibilizaziotzat” jotzen dugu informazioa eskuratu eta ulertzeko prozesua ez ezik, baita iritzia azaltzeko, arrazoibideak barneratzeko eta praktikak eta jarrera proaktiboak sortzeko prozesua ere. Hain zuzen, jarrera proaktibo eta portaera koherente horiek sustatu ahal izateko, batez ere zenbait oztopo gainditu behar dugu.

Zenbait eragileren sentsibilizazioaz ari gara: ez bakarrik etorkinena, baita klase politikoko profesionalena ere.

### Immigranteei zuzendutako sentsibilizazioa:

Genero indarkeriaren biktima diren emakume etorkinek askotan ez dituzte ematen tratatu txarren egoeratik irteteko beharrezko urratsak. Asko beldur dira eta hauek dira maizen sentitzen dituzten beldurrak: beren bikotekideek berriz bildutako emakumeen administrazio-egoera galtzea; beren haurrak berriro ezin elkartzea, baldin eta baimena senarraren esku badago; beren ezkontidea kanporatzea; erasotzailearen baimena gabe adingabeekin beren jatorrizko herrialdera bidaiatzeko aukerarik ez izatea... Aurrekoari gaineratu behar diogu jatorrizko herrialde askotan segurtasun juridikorik eza dagoela agirien izapideak egiteko edo arintzeko, etab., eta horrek konponbideak bilatzea galarazten du. Beldurrak are handiagoak dira administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeentzat.

Emakume horiek sentsibilizatu, jakinaren ganean jarri eta laguntzeko ahaleginak egin beharko lirateke, era horretan bizitzen ari diren indarkeria-egoerei amaiera eman diezaieten. Hori dela eta, hauxe gomendatzen dugu:

Alde batetik, emakumeei beren inguruabarretara egokitutako beharrezko informazio guztia eskaintzea; hain zuzen, salaketa jartzean azaltzen diren gai juridikoei buruz, baina salaketa jarri baino lehen. Bestetik, horrek berekin emakumeentzat zein beren inguruko pertsonentzat (ondorengoak, beren ardurapean dauden beste pertsona batzuk, senideak eta lagunak, erasotzailea,...) ekar ditzakeen ondorioak ezagutzea. Biktimek eskura ditzaketen baliabiderik hurbilenekoen berri ematea (harrera-baliabideak, arrazoi humanitarioengatiko bizileku-baimena, lan-baimena, etab.), baita balia ditzaketen bitarteko eta eskubideen berri ematea ere, behin genero-indarkeriaren egoera “gainditu” ondoren: laguntza ekonomikoak, etxebizitza-alorreko laguntzak, enplegurako laguntzak, etab.

Salaketa jartzea ez den beste aukera batzuk aurkeztea.

### Klase politikoari zuzendutako sentsibilizazioa:

Laneko ezegonkortasunak edo, bizilekua izateko edo lan egiteko baimenik ez dutenean, enplegua lortzeko eragozpenek askotan atzerritar jatorriko emakumeen mendekotasun-egoerak sorrarazten dituzte bikotekideekin. Harremana eteteak dakar beren beharrianak betetzeko baliabide ekonomikorik gabe geratzea (aniztetan jatorrizko herrialdera bidaltzen duten dirua baita); batetik, genero-indarkeriaren biktimentzat ezarritako laguntzak jasotzeko eskubiderik ez dutelako, baldintzaren bat ez betetzeagatik; edo, bestetik, laguntza horiek edo beste batzuk (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) beren kabuz kokatzeko nahikoak ez direlako. Egoera hori ere gertatzen da bertako emakumeekin; dena den, emakume etorkinen kasuan egoera



larriagotzen duten bi alderdi daude. Aintzat hartu behar da askotan beren erreferentzia-taldearekiko etetea ere eragiten duela. Horiek guztiak eta askoz gehiago dira emakume etorkin ugariaren errealitateari loturiko kontuak. Horregatik, beharrezkoa da politikariak errealitate horietaz jabeturik egotea eta, halaber, erabakiak eta neurriak hartzerakoan kontuan izatea.

### **Profesionalei eta boluntarioei zuzendutako sentsibilizazioa**

- Gai juridikoetan informazio-ildoak eskaintzea, Atzerritarren Legeari buruz (arrazoi humanitarioengatik bizileku-baimena...).
- Ikuspegi etnozentrismoan ez erortzea.
- Konponbidea salaketan bakarrik ez oinarritzea: errespetatu behar da emakume askok ez salatzen duten erabakia eta, batez ere, egoera irregularrean daudenak ulertu behar ditugu.
- Ez da kultura-erlatibismoan erori behar. Genero-indarkeria beti emakumeen funtsezko giza-eskubideen eta askatasunen urraketa da. Horrenbestez, genero-indarkeriaren egoerak ez dira justifikatu behar desberdintasun kulturekin loturiko kontuengatik.
- Biktimei beren jatorriaren arabera tratatu desberdindu baztertzailerik ez ematea.
- Beste kultura batzuekiko, patriarkalismoan ez erortzea, zeren kultura eta erlijio guztiak matxistak baitira, eta guretik besteei ez diegu ez irakatsi ez adibidea erakutsi behar.
- Indarkeria-egoeren irtenbidea prozesu indibidual gisa ikustea; baina, aldi berean, prozesu kolektibo moduan ere bai, erreferentziako testuinguruak jarrera-sortzaileak baitira (erresistentzia, konpromisoa,...)
- Arloko profesionalen artean jokabide onak eta esperientziak trukatzeko guneak bultzatzea (lan-taldeak, jardunaldiak, ikastaroak, etab...)

### **III. PRESTAKUNTZA**

Genero-indarkeriaren prebentzioan eta emakume biktimeentzako arretan, edukietan, eskaintzan, orientabidean eta egokitapenean parte hartzen duten pertsonen etengabeko trebakuntza da.

Errealitate berri samarra izan arren, immigrazioaren alorrean **herri-administrazioetan** prestakuntza espezializatua eskaintzen da, baita genero-indarkeriaren alorrean ere; hain zuzen, zenbait profesional-talderi zuzenduta. Dena den, egungo egoera eta eskaintza hobetu ahal izateko honako hau gomendatzen dugu:

- Bi alderdiak elkartzen diren prestakuntza integrala eskaintzea; hau da, genero-indarkeriaren alorreko prestakuntzak kulturartekotasuna barne har dezala eta; bestetik, immigrazio-alorreko prestakuntzak, emakumeen kontrako indarkeriaren jatorri gisa, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren arazoa bil dezala. Hau da, immigrazio-alorreko prestakuntza ikuspegi feministatik diseina dadila.
- Gabezia handiagoak aurkitu diren zenbait sektore profesioaletan arreta jartzea: ikastetxeetako irakasleak, osasun-profesionalak edo eremu juridikoko profesionalak.
- Prestakuntza-eskaintza malgutzea; era horretan, ordutegiei eta prestakuntza emateko tokiei dagokionez, errazago jaso ahal izateko.
- Iraupena handitzea eta, bestetik, edukiak espezifikoak eta esku-hartze eremu bakoitzera egokituak izan daitezela.
- Herrialdeetako kulturari buruzko informazioa sartzeko, horrela esku-hartzea hobeto sakondu eta moldatzeko, biktimaren jatorrizko herrialdearen arabera.

**Elkarteak oro har** kontuan izanda, beharrezkoa da prestakuntza-eskaintza handiagoa eta, batez ere, uneko prestakuntzaren zabalkunde handiagoa eta hobia.

Gomendagarria da prestakuntza mota hori prestakuntza-esparru orokorretan gehitzea; hau da, gizarte-erakundeen prestakuntza-planetan; udalen, aldundien eta gainerako erakundeen prestakuntza-planetan sartu eta kontuan har dadila.



## IV. ARRETA ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEN INGURUABARRETARA EGOKITZEA

Emakume etorkinentzat ez da beharrezkoa **atzemateko eta jarraipena egiteko berariazko protokoloak** egitea; hala ere, kolektibo horri loturiko zenbait berezitasun aurreikusi behar dira.

Egoera irregularrean dauden emakume etorkinei loturiko berezitasun horien artean nabarmendu behar da egungo Atzerritarren Legearen 31 bis.2 artikuluan jasotako betebeharra, hain zuzen, egonaldi irregularragatik **zehapen-espediente**a irekitzeko, hori guztia tratu txarreatik salaketa ebatzi arteko etendura bazter utzi gabe. Poliziaren Kidego Nazionalako Atzerritarren Brigada mota horretako zehapen-espedienteei hasiera emateko eskumena duen bakarra dela kontuan izanda, egoera irregularrean dauden emakume etorkinei jakinarazi behar zaie Legeak behartzen duela beren kasua Atzerritarren Brigadara bideratzera.

EAEko hizkuntza ofizialetako bat ez jakiteagatik **itzulpena** beharrezkoa den kasuetan, itzulpen-zerbitzu hori langile gaituek egin beharko lukete. Horretarako, ahaleginduko da langile horiek emakumeak izaten, gainera biktimaren kulturari eta genero-indarkeriaren errealitateari buruzko ezagupenak dituztenak. Halaber, ahaleginduko beharko litzateke emakume itzultzaile hori bera izaten, bai egoitza judizialean bai gainerako kudeaketa eta baliabideetan.

Aurrekoaren ildotik, atzemateko protokoloetan ezartzen diren zerbitzuetako batzuek jarraitasuna izan beharko lukete behin salaketa-aldia bukatu eta baliabideren batera bideratu ondoren. Azken finean, emakume etorkinek une oro itzulpen-zerbitzuaz baliatzeko aukera izan behar dute eta, ahal dela, pertsona bera izango da.

Emakume etorkinentzako berariazko baliabideak ez ezartzeak ez du eragozten harrerapisuetan **kulturarteko bitartekaritzaren** irudia aurreikustea. Itzulpenaz mintzatzerakoan azaldutako antzeko moduan, garrantzitsua da bitartekotza hori eta, batik bat, laguntza pertsona berak egitea. Etengabeko aldaketek deskoordinazioa areagotzen dute eta biktimentzat karga emozional handia da.

Bukatzeko, **Gobernuaren Ordezkariorde**tza beste eragile esku-hartzaile bat gehiagoren antzera protokoloetan sartzeak lagunduko luke emakume etorkinentzat alderdi garrantzitsu batzuk hobetzen, zehazki, bizilekua izateko eta lan egiteko beharrezko baimenak eskuratzeari loturiko gaiak. Hori hala izanik, genero-indarkeriaren emakume biktimen espedienteak lehentasunez izapidetu eta ebatzi egin beharko lirakeke. Etorkizunean Atzerritarren 2/2009 Lege Organikoa garatzeko erregelamenduak aurreikusiko duena alde batera utzi gabe, egun legehutsune handia dago genero-indarkeriaren biktimen seme-alabei dagokienez, zeren beraientzat Legeak inolako baimenik aurreikusten ez baitu. Emakume etorkin irregularrek, beren eskubidea baita, jaso dezaketen baimena beren ondorengoentzat ere izan behar du, adinez nagusiak izan edo ez.

## V. EGITURAZKO NEURRIAK

1. Indarreko legerian jasotako zenbait alderdik ondorio kaltegarriak ditu emakume etorkinentzat eta, biktima diren emakume etorkinei gauzak erraztu eta lagundu beharrean, berorien egoera are zailago bihurtzen dute, beraz hainbat arau aldatzeko beharra ikusten da:

- Atzerritarren Legea, 2010ean eguneratua – 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizartratzeari buruzkoa (31. bis artikulua: egoera irregularrean dauden emakume biktimei zehapen-espedienterik ez irekitzeko, baldin eta tratu txarren kontrako salaketan aldeko epaia izan ez badute).
- Agindua, 2010/03/3koa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoak eman eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Araudia. (16.b art.) Genero-indarkeriaren biktima diren emakume guztientzat erroldatzeko urtebeteko gutxieneko epea malgutzera.



- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren kontrako babesneurri integralei buruzkoa.  
(27.3. art.: laguntzaren jasotzailea enplegu-eskatzaileria izateko eskakizuna).  
(1. art.: Genero-indarkeria = amodio-harremainera mugatua). Kontzeptua zabaltzea, etxeko indarkeria eta sexu-erasoak sartuta.

2.- Informazio-sistemei dagokienez, honakoa behar da:

Tresna bakarra eta homogenea, genero-indarkeriaren berriazko azterketa ahalbidetzen duena, etxeko indarkeriatik bereizita; ondorengo datuak biltzen baititu:

- Tratu txarren tipologia
- kalteak
- ondorioak biktimarengan
- biktimaren profila
- arrisku-faktoreak eta babesak

Estatistika osoak, fidagarriak eta irizpide bateratuak dituztenak, honen arabera banatuta:

- sexua
- naziotasuna
- ikasketak
- emandako babes-aginduak
- baimen-kopurua
- behin-behineko bizilekuak

Datuak biltzeko Erakunde arteko Hitzarmenean dagoen fitxa hobetzea, era horretan datuak erregistratzeko sistema informatikoak eta informazio-euskarriak eraginkorrago bihurtzeko.

Generoaren ikuspegitik, genero-indarkeriari eta immigrantei buruzko azterlan kualitatibo eta kuantitatiboak, ebolutiboak egitea.

3.- Planifikazio-esparru espezifikoen emakume etorkinen berriazko premiak gehitu egin behar dira, horretarako indarkeria prebenitzeko eta berdintasuna sustatzeko aurrekontu-sailak handituz eta programak eta boluntarioak mantendu ahal izateko diru-laguntzen izapideak arinduz.

4.- Premiazkoa da elkartegintza eta gizarte-antolaketa lagundu eta sustatzea, hain zuzen, indarkeriaren kontrako prebentzio-bide gisa; elkarte horien artean modu egituratuan eta jarraituan topaguneak ezartzea; emakumeak ahalduzko estrategia gisa, emakume etorkinen elkarteetan, elkarte mistoen eta bertako emakumeen elkarteetan artean esperientzien eta jardueren trukaketa bultzatzea.

5.- Premiazkoa da probintzia arteko eta autonomia-erkidegoen arteko lekualdaketak behar dituzten emakume biktimentzat arretarako plan autonomikoa diseinatzea.

(\*) Lan-prozesu honetan parte hartu duten erakunde publikoak eta sozialak honako hauek dira:

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA

INMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO ZUZENDARITZA

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA EMATEN DIETEN EMAKUME-ELKARTEAK

- AIZAN, Psikosozial Elkarte
- ARGITAN, Emakumeentzako Aholku Etxea
- Basauriko Emakumeen Elkarte
- AVICONTEDO, Etxeko Terrorismoaren Kontrako Bizkaiko Elkarte
- CLARA CAMPOAMOR, Emakumearen Eskubideen Defentsarako Elkarte



## EMAKUME ETORKINEN ETA IMMIGRAZIOAREN ALDEKO ELKARTEAK

- SAFA, Emakumeen Elkartea
- Besarkatuz Elkartea
- Emakumeak Aniztasunean Elkartea
- Garaipen Elkartea
- HARRESIAK APURTUZ, Immigranteei Laguntzeko Euskadiko GKEn Koordinakundea
- Malen Etxea Elkartea
- Gipuzkoako SOS ARRAZAKERIA - MUGAK

## TOKI-ADMINISTRAZIOA

- Vitoria-Gasteizko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartea

## FORU ADMINISTRAZIOA

- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia

## ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

- Justizia eta Herri Administrazio Saila
- Osasun eta Kontsumo Saila.
- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea

## IDAZKARITZA TEKNIKOA

BILTZEN – Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua